


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA**ASKATASUNAREN HIRIBIDEA, 43**

Egilea eta data: Jose Galo de Aguirresarobe; 1866.

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, jatorriz behe oina eta lau goi oin dituen, gehi hiru jasodura (lehenengoa, fatxada planoan, 1867ko estalkipe mantsardatua ordeztzen duena; eta, beste biak, mantsarda bikoitzean) dituen. Behe oinean jatorrizko proiektuaren konfigurazioa berrezarri dute gutxi gorabehera, nolabaiteko erliebea duen hareharri estaldurarekin (kuxindurak eta zokaloa). Goi oinetako fatxada entokatuta dago harrizko baoetako azpadurekin, eta zurezko begiratoki bikoitzak ditu (1. oinetik 4.era jatorrizkoak izan daitezke). Jatorrizko proiektu komuna Askatasuna 41ekin (gaur egun ordezkatur).

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta olana eta abarren ezarpena, Plan Berezi honetako Ordenantza Orokorretako babes maila horretarako ezarritako gai horiek erregulatzen dituzten irizpide orokorretara egokitu da.

2.- Berariazko erregimena.

A.- Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: jasodurak (6. eta 7. goi oinak).

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko (gaur egun ezkatutua) elementuak; begiratokiak.

C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:

* Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritakoari jarraituz.

* Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak, hala badagokio.